

# BASKEPENSIONES 15 GAPI

## INBERTSIO POLITIKA

Arriskurik gabeko aktiboekin lortu daitekeena baino errentagarritasun handiagoa nahi duten inbertsio-profil kontserbadoreko pertsonentzat. Horretarako, inbertsioaren zati bat, gehienez % 15, errenta aldakor nazional eta nazioartekora bideratzen da.

### 2019/06/30era Errentagarritasunak UTB

1 hilekoa*	3 hilekoa**	Urtekoa*	Urte 1	Urte 3	Urte 5	Urte 10
%1,65	%1,76	%4,86	%2,04	%0,99	%0,56	%2,19

\*Urtebete baino epe laburragoak diren errentagarritasunak ez dira urtekotzen.

2019	2018	2017	2016	2015	2014	2013
%4,86	%-4,40	%1,65	%1,05	%-1,34	%5,38	%6,57

\*Iraganeko errentagarritasunek ez dute garantizatzen etorkizuneko errentagarritasunik.

### 2019/06/30era Estatistikak

Lurrunkortasun 1 urte**	%2,23
Lurrunkortasun 3 urte**	%1,94

\*\*Epealdiko eguneroko hegazkortasuna edo azken aldiz inbertsio politika alda zenetik, epe hori, laburragoa balitz.

## HILEKO IRUZKINA

Estatu Batuen eta Txinaren arteko gerra komertzialak, Banku Zentralaren mezuekin batera, inbertitzaileen arreta monopolizatu zuen ekainean zehar. Merkatuak hazkunde globalari buruzko zalantza berpiztuak argitu nahian ibili ziren, batez ere maila geopolitikoan zegoen ziurgabetasunagatik eta Banku Zentralek malgutasun monetario bat ezarriko ote zuten itxaropen gero eta handiagoengatik. Maiatzeko beldurrek eta kezkek, zeinek arrisku-aktiboekotizazioak nabarmen oztopatu baitzituzten, bere horretan jarraitzen dute. Ipar Amerikako susperraldi ekonomikoa -historikoki luzea, baina baita moderatua ere- presazko ziklo-amaiera hurren batean amaituko ez ote den beldurra ez da aienatu oraindik, protekzionismoari lotutako ekonomia moteltzeagatik. Orokorrean, datu makroeko-


nomikoeak, batez ere Europan, ahul samarrak izaten jarraitzen dute eta Brexitaren, Europako norabide politikoaren edota Ekialde Ertaineko tentsio geopolitikoaren gaineko ziurgabetasunak ere bere horretan jarraitzen dute. Hala ere, Txinako hazkundearen aldeko pizgarri buruzko neurri berriak, AEBen eta Mexikoren arteko migrazio-gatazkaren itxurazko konponbidea, G-20 taldearen bilera itun komertzial bat lortzeko itxaropenak eta era horretako gertakariak mesedegarriak izan ziren merkatuen martxarako, zeina banku zentralen aldeko mezuek argi eta garbi bultzatu baitzuten. AEBko Erreserba Federalak (FED) eta Europako Banku Zentralak (EBZ) egin duten agertoki ekonomikoaren deskribapena benetan positiboa bada ere, arriskuak -batez ere tentsio komertzialekin zerikusia dute-

nak- areagotu izanak bi banku zentralak bultzatu dituzte politika monetario moldakorrago baten aldekoago agertzera. Alde batetik, arriskuaren mapan hobekuntzarik nabaritu ezik, EBZak pizgarri monetario gehiago eskainiko lituzkeela adierazi zuen Draghi-k. Bere aldetik, interes-tasak aldatu ez arren, FED erakundeak aldaketa esanguratsu bat sarrarazi zuen bere komunikatuan, "lasai" jarraitzeko erreferentzia ezabatu baitzuen, adieraziz, ekonomia inguruko arriskuak monitorizatuko dituela eta behar den legez jokatu duela hedaldiari eusteko. Merkatuei dagokienez, munduko burtsa nagusietan orokorrak izan diren igoerekin bukatu da hilabetea. Trump-en eta Xi-ren arteko bilera berretsiaren zain, banku zentralak moldakortasunaren alde iragarritako norabide-aldaketa harrera ona izan zuen errenta aldakorreko merkatu


globalizatuetan; areago, Amerikako burtsa maximo berriak ezartzera heldu zen. Europan ere itxierak onak izan ziren, aurrerapenak Estatu Batuetakoak baino neurritsuagoak izan baziren ere (Euro Stoxx 50 indizea % 5,89 igo zen). Errenta finkoari dagokionez, pizgarri monetarioen aldeko itxaropenek zor subiranoaren interes-tasen jaitsiera biziagotu dute Atlantikoaren bi aldeetan. Hala bada, Alemaniako hamar urterako tasak -% 0,30 hausten zuten, eta Estatu Batuetan berriro itzultzen zen % 2ra, maila hau duela hilabete gutxi behin betiko gaindituta zegoela bazirudien ere. Ildo berean, Europako periferiako arrisku-primak eta enpresa-bonuen diferentzialak estuagotu egiten zirela ikusi ahal izan genuen. Dibisei dagokienez, dolarrak bere prezioa jaitsi egiten zuten Euroaren aurrean, AEBetan interes-tasak jaits zitezkeelako.

## EZAUGARRI OROKORRAK


Ondarea:	2.819.227.389,77
Komisioak guztira:	%1,60
Harpidetza komisioa:	%0,00
Errenboltso Komisioa:	%0,00
Arrisku-profila:	Baxua
Inbertsiorako gutxienezko epea:	-



### Zorroaren banaketa



### Errenta aldakorreko zorroaren banaketa geografikoa



# BASKEPENSIONES 15 GAPI

## BASKEPENSIONESEN ONURAK:

- Aurrezteko finantza-tresna, zure etorkizuneko pentsio publikoa osatzen laguntzeko.
- Nahi duzun eta ahal duzun moduan aurrezteko malgutasun osoarekin.
- Inbertitzeko politika desberdina duten Baskepensiones desberdinen artean zure aurrezkia askatasunez mugitzeko aukera, zure profilararen arabera hobeto egokitzeko.
- **Konfiantza Kutxabanken.** Epe luzerakoak izan daitezkeen eragiketetan garrantzitsua da.
- **Onurak Kutxabankeko beste produktu batzuetan** (gordailuetan, maileguetan, eta abarretan).

Eta gainera, banakako BGAE denez, **PFEZaren Zerga Oinarria murrizten duten ekarpenetarako zerga-tratamendu onenaz balia zaitzke.**

## BASKEPENSIONES 15 PLANAK HONAKO ONURAK DITU:

**KUDEAKETA PROFESIONAL AKTIBOA**, inbertsioak merkatuen inguruabarretara egokitzeko. Eta **OROKORRA**, dibertsifikazio geografiko eta sektorialarekin.

**ARRISKUAREN KONTROLA.** Aktiboen analisi eta jarraipen etengabea egiten dugu errentagarritasunaren eta arriskuaren arteko oreka onena lortzeko.

**EGUNEROKO JARRAIPENA**

Espainiako ondare-kudeatzaile nagusietakoaren **ESKARMENTU ETA KALITATEA** (Kutxabank Gestión).

## PROBA EZAZU ERRETIRORAKO GURE SIMULAGAILUA.

Zure egoerari buruzko banakako txostena prestatuko dizugu. Simulagailuarekin zenbateko pentsioa kobratuko duzun, erretiroa hartutakoan bizimoduari eusteko zenbat aurreztu beharko duzun eta zure beharrianetara zein plan hobeto egokitzen zaizun kalkulatu ahal izango duzu.

**Hasi etorkizuna planifikatzen,  
Baskepensioneekin:**

**SIMULAGAILUA**

Kutxabank, SA  
Kale Nagusia, 30-32, 48009 Bilbo.  
IFK: A95653077. Bizkaiko Merkataritza Erregistroan inskribatuta.  
5226 Tomoa, 0 Liburua, BI-58729  
Orria, 1 Folia, 1. Inskripzioa.

# BASKEPENSIONES

Kutxabank SA Bazkide sustatzailea.  
Kutxabank Gestión IKESK SAU Ondare Kudeatzailea.

BANAKAKO BGAEa

Etokizunerako  
planetan  
liderrak.